

Hizkuntzei, Curriculumari eta Ikasle Etorkinei buruzko III. Jardunaldiak

Deustuko Unibertsitateak Hizkuntzei, Curriculumari eta Ikasle Immigranteei buruzko III. Jardunaldiak antolatu zituen apirilaren 8rako eta 9rako, honako goiburu honekin: Komunikazio linguistikoko gaitasuna programatzea eta ebaluatzea. Asmoa hauxe izan zen: ikasle etorkinei bigarren hizkuntzak irakasten diharduten irakasleen profilen eta prestakuntzako beharrezan inguruko ekarpenak eskaintzea. Hizkuntza errefortzuko irakasleentzat, aholkulari eta ikertzaileentzat prestatu ziren jardunaldiotan, bigarren hizkuntzak immigranteei irakasteko sarea (RESLI) aurkeztu zen. Unibertsitateko irakasleek eta Cervantes Institutukoek parte hartu zuten hizlari gisa topaketa horietan. Beste gai batzuen artean, espainiera 2. hizkuntza gisa derrigorrezko hezkuntzan menderatzeko proben balioa eta prestaketa aztertu zen, baita DBHko atzerriko ikasleentzako ebaluazioaren diseinua ere. Jardunaldietan aurkeztu zen *Inmigración y aprendizaje de lenguas en comunidades con dos lenguas oficiales* liburua ere. Autoreak Jasone Cenoz eta Xabier Etxague dira, Euskal Herriko Unibertsitatekoak. Horrez gain, mahai-inguru bat ere egin zen honako gaiaren inguruan: «Evaluación: análisis e interpretación de resultados». Bertan, Francisco Lunak, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundekoak (ISEI/IVEI), EAEko ikasle atzeritarren ebaluazioaren lehenengo emaitzak eskaini zituen.